

TOKIKOM

2017ko ekaina | 171. zenbakia

aitza!

txorierriko aldizkaria



Iraia Iturregi, futbolaria

**Gero arte,
kapitaina!**





Suit Delux RenoBED aparteko eskaintza, abuztuaren 10era arte:

ALDATU ZURE OHEA, ALDATU ZURE BIZITZA



* Gure atsedenaldirako ekipo eskusiboei esker, loaldi sakonaz eta goi-mailakoaz gozatuko zara eta horrela, bizitza beteagoa, biziagoa eta osasuntsuagoa izango duzu. Zure onena emango duzu.



Eskaintza dendako artikuluetarako: oheak, somierrak, oinarriak, kutxatzarrak, koltxoak, burkoak, edredoiak eta ohe-jantziak



SUIT DELUX

ATSEDEN MARKA ESKLUSIBOAK

LEIOA, La Avanzada 80 - 944 316 516

WWW.SUITDELUX.COM

DERIO, Seminarioa - 944 545 147

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albistekak
-  **11** Irudietan... Byron Zurdo eta Mikel Uriarte
-  **12** BBK Legends Festival
-  **14** Gaztea eta... Ainhoa Gana, ikerlaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Iraia Iturregi, futbolaria
-  **22** San Pedro-Santa Luzia Loiuko jaiak
-  **26** Mintza Eguna, Derion
-  **28** Via Campesinaren VII. konferentzia
-  **30** Txorierri ezagutu... Gerra-Gaztelu etxea
-  **32** Taldeak/Elkartek... Uritarra futbol taldea
-  **34** Teknologia... Hegaz doaz gure datuak
-  **35** Aikorrizketa... Ez da faltako zeresana
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 San Pedro-Santa Luzia Loiuko jaiak



28 Via Campesinaren VII. konferentzia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekileri, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ixone Zubieta, Ana Mezo, Xabier Díaz, Idoia Andrés,
Jon Goikouria Larrabeiti, Gaizka Peñafiel, Itallen bertso eskola, Ana Apika
eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Bidaia

Hau da Euskal Herrian hasi eta amaituko den bidaia xume bat. Euskal Herrian, 70. hamarkadan, feminismoaren funtzionamendua besteenganako konfiantzan oinarritzen zen. Norbanakoaren esperientzia eta teoria osagarriak ziren. Gaur egun teorietan aurreratu dela, baina horizontaltasunean galdu den susmoa dut.

Txiapasen, Mexikon, bizilagunen gehiengo andra indigenak dira. Tzotzil hizkuntzan ez dute "gaztea" esateko berbarik. Umea edo andra zara, hilekoak zehazten du batetik bestera igarotzea. Beraz, disfrutatzeko, ikasteko edota harreman sexual libreak izateko denborarik ez dute.

Estatu Batuetara salto egin eta Angela Davis aipatu gurako nuke. Oraintsu Euskal Herrian ibili da eta arraza, genero eta klase arazoak berriro jarri ditu mahai gainean, baita EEBBetan andrazkoek kartzeletan sufritzen duten aparteko zapalkuntza ere. Kartzelak sortu ziren "gizonezkoak damutu eta herritar hobeak" bihurtu

ahaz izateko. Eskubide hori ez zitzaion andrazkoei aitortu ez zirelako herritar osoak.

Afrikara bagatoz, esaterako, Senegalera, ezkontzen ez diren andrazkoak baztertu egiten dituzte. Estigmatizatuta daude eta sarritan ohitura "arinekokoak" direla esaten da. Hori dela eta, bikotea aurkitzeko zailtasun handienak dituzte ikasketadun andrazkoek eta aktiboan daudenek.

Tailandiak liluratu egiten gaitu baina, andrazkoa pertsona ala merkantzia den ez dakigu. Karen etniako "Andra Jirafa" izateko ilargi betea dagoen eguazten batean jaio behar da. Andra "pribilegiatuak" dira. Txikitik hasten dira brontzezko eraztunak lepo gainean jartzen. "Andra Objektua" izatearen adibide garbiak dira.

Samoako andrazkoen askatasun sexualaren gainean Margaret Mead antropologak esandako guztia faltsua zela konprobatu zen. Lastimala!

Larrabetzun, 80 urte faxistak herrian sartu zirela eta, ekimen zabala izan dugu.



ANA MEZO
(Irakaslea)

Zutunik taldeak ekarpen handia egin du eta pelikulak ikusteko aukera izan dugu, gerra sasoiaren ikusezinak diren andrazkoen bizipen latzak jabetzeko.

Lan handiak ditugu genero eskubidei begira baita eskubide sozial eta ekonomikoei begira ere. Kultura eta ohituren gainean egin beharreko lanak ere badaude. Angela Davisek esaten duen moduan, aliantzak egin behar dira herri mugimenduekin, arazo guztiei aurre egin ahal izateko. Arazoak diren neurrian erronkak ere badira. Animo!

Ekainaren 13an, Baserri Antzokia jendez gainezka egon zen, Kuku Antzerki Eskolako umeen urte amaierako antzerki emanaldia ikusteko. Poza ematen du orain dela zortzi urte Tximintxek ilusioz martxan jarritako proiektua urtetik urtera indarra hartzen dabilela ikustek. Ume eta gaztetxoak gustura dabilzala nabaritzen da, oholtza gainean behintzat hori transmititzen dute.

Gustura egoteaz gain, Txorierriko herrietatik datozen gazteek astean behin mimoa, mozorroak, makillajea, gerizpeen teknika... lantzen dituzte, hau da, antzerkiaren teknika ezberdinak erabiliz, emozioak, lotsa, jendaurrean hitz egitea, gor-

Oihala gora!



IXONE ZUBIETA
(Tximintx Derioko euskara elkartearen presidentea)

putzaren mugimendua eta abar lantzen dituzte. Eta, zelan ez!, lagunak egin ere bai.

Aukeratzen diren gaiak ere badira taldekideen adin eta interesen arabera. Hasieran, ume txikiagoak egoten zirenez, balioetan oinarritutako betiko gaiak aukeratzen zituzten, eta urteak aurrera egin ahala, txikienekin horrela jarraitzen bada ere, hazi egin direnekin euren inguruko gaiak lantzen dira (*bulling*-a, teknologia berriak...). Matrikulazioa hasi da, eta sei urtetik 16 urtera bitarteko gazteek atek zabalik dituzue!



Galdeketa egingo dute 2018an Zamudion eta Lezaman

Gure Esku Dago (GED) plataformatik jakinarazitakoaren arabera, erabakitze eskubidearen inguruko galdeketa egingo dute datorren urtean Zamudion eta Lezaman. Zamudioko GEDkoek esan diguten moduan, ez dute oraindik data zehaztu eta azaldu digute Euskal Herriko beste herri batzuetan noiz egingo den zain dau dela, "guztion artean indar eta oihartzun handiagoa izateko". Larrabetsun aurten egin dute galdeketa, martxoaren 19an hain zuzen ere. Botoa emateko eskubidea 1.585 larrabetsuarrek dute eta galdeketa 919k hartu zuten parte. Horien % 94,23k euskal Estatu burujabe baten aldeko botoa eman zuten.

Bestetik, erabakitze eskubidearen arloan urratsak ematen jarraitzeko, Gure Esku Dago plataformak Bilbon galderamarka erraldoia osatzeko deia egin zuen ekainaren 10erako. Euskadi plazatik Plaza eliptikora arteko tartean mosaiko handi bat egin zuten eta bertan hainbat txoriez hartu zuten parte. Ekitaldia oso jendetsua izan zen eta Herritarron Ituna ere aurkeztu zuten. Antolatzaileen esanetan, "gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzea gure esku dago", eta erabakitze baldintza egokiak sortzeko, "korapiloak askatu eta adostasun zabalak" lortu behar dira. Herritarron Ituna tresna egokia da horretarako.

Pintxo solidarioak 762 euro batu ditu Erandiogoikoan

Pintxo solidarioen ibilbidea Danontzat Loiuako elkarteak eta Erandiogoikoko jai-batzordeak antolatu dute eta, azaldu diguten moduan, pozik baino pozago daude herritarrek erakutsi duten solidaritatearekin. "Orotara 762, 65 euro batu dugu. Pintxorik jan ez zuenak ere dirua sartu zuen itsulapikora". Pintxoak Erandiogoikoko tabernek eta elkarteek eman zituzten eta euro batean saldu ziren. Batutako dirua Gurutzetako ospitalean dauden eta minbizia duten umeentzako jolasak erostera zuzenduko dute.

Bestetik, Danontzat elkartetik esan diguten moduan, Loiuako jaientan ere egingo dute pintxo solidarioen ibilbidea. Ekintza Udalarekin eta Loiuako Bakarrak gazte elkartearekin antolatu dute eta ibilbidea hurrengo hau izango da: Loiuako Bakarrak elkartearen txosna, Jubilatua, Batzokia, Loiu hotela, Lashoa, Larrakoetxe kirol taldearen txosna eta Loiuako Bakarrak elkartearen txosna. Gainera, azken geldialdi honetan Txoribikers taldeak emandako pintxoak ere egongo dira. Poteoa arratsaldeko 7:30ean hasiko da eta batzen den dirua aurreko erroetan aipatutako helburu berara zuzenduko dute: Gurutzetako ospitaleko onkologia atalean dauden umeentzako jolasak erostera. Pintxoak Loiuako tabernek eta elkarteek emango dituzte.



**Carrefour**
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

**AmArz**
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

**Aresti**
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06



Derioko lotuneko obrak irailean amaituko dira

Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak adierazi du Santo Domingo jaitsieran egiten dabil-tzan lanak irailean amaituko direla. "Bizkaiko Errepideen Sareko puntu garrantzitsu bat da hori, hortik egunero 16.000 ibilgailu ibiltzen baitira, aireportura, teknologia-parkera eta industrialdeetara joateko". Obra duela urte bete eta erdi hasi zen, puntu horretan arintasuna eta trafiko-ahalmena hobetzeko. Lanek 6,9 milioi euroko aurrekontua dute. "Ziur gaude egunegun egun mesede egingo diela gidariei, bai egunero lanera joan eta lanetik itzultzeko korridorea erabiltzen duten guztiei, bai uda honetan aireportura joateko erabiliko dutenei". Hala, bigarren erreia atontzen ari da, aireporturantz eta teknologia-parkerantz doan trafikoa arinagoa izan dadin eta korridorean gutxiagotan gerta daitezkeen auto-ilarak.

Gure kirolaren euskal jaia

Futbola Oinarririk Euskaraz proiektuak denboraldi bukaerako jaia ospatu du zazpigarren aldiz aurtengo ekainean. Benjamin eta kimu mailetakako partidak jokatu ziren Sondikako futbol zelaian. Ondoren, omenaldiak eskaini ziren: batetik, Sondika, Zamudio KE, Lezamako Bizia KT eta Larrabetzuko Uritarra taldeei; eta bestetik, Jose Angel Iribar Athleticeko jokalarari ohi mitikoari. Ekitaldia borobiltzeko, kopaua eskaini zen.

"Aurtengoa ediziorik onena izan da. Batetik, kanpoaldean egin dugulako. Gainera, aurten, lehendabiziko aldiz, denboraldia bukatu denean egin dugu. Eta data askoz aproposagoa da. Beraz, oso

pozik gaude. Gainera, datorren urtean, proiektua sendoagoa izango da, Derioko Arteaga taldeak eta Txorierrri Basketland S.K. taldeek Futbola Oinarririk Euskaraz egitasmoarekin egingo dutelako bat", esan du Koikili Lertxundi sustatzaileak.

Futbola Oinarririk Euskaraz proiektua EuSport enpresak eta Totoan Txorierrriko Euskara Elkartearen Federazioak bultzatu zuten 2009an, Txorierrriko Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzarekin. Proiektuak euskara kirolean zabaltzea du helburu. "Badakigu lan handia dagoela egiteke, euskara eta erdararen arteko alde oraindik handia delako, baina gu itxaropentsu agertzen gara".



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISIA
Etegabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

IRATXO
gazotegia

larta personalizatua
brufak
lelak
pastelak
pastorak

Mikel Arento, 2 - 3. Lonja - Sondika, 48150 - 94 453 89 30

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

Tel./fax: 94 452 06 64
Torrelarragoli Ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA - JATETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bafaioak eta ezkontzak



Eneko jatetxea, sustraietara itzultzea

Eneko Atxa Azurmendiko sukaldariak beste jatetxe bat ireki du Larrabetzun, Eneko jatetxea. "Hau gustura egoteko moduko lekua da, giro atsegina, hurbila eta informala duena", esan zuen Atxak. "Hemen sustraietara itzuli nahiko genuke, hau da, hasiera batean adierazten genuen maitasuna berreskuratu. Edozeini dago zuzenduta: bikote gazteei, enpresei... Bezeroengandik gertu egon nahi dugu, gurera datozenak etxean egongo balira moduan sentitzea nahi dugulako".

Eneko jatetxea Azurmendi eta Gorka Izagirre upeltegiaren goiko aldean dago, Larrabetzuko Legina auzoan. Atxak betiko kalitatea eskaintzen jarraituko du bertan, baina Azurmendi baino xumeagoa eta merkeagoa da Eneko. Esate baterako,

menuak 55 euro balio du (BEZarik gabe). Horren truke Atxak sortutako Sutan menua jateko aukera dago. Guztira, bederatzirek plater eskaintzen dira menu horretan, besteak beste, olibak eta Zerratiako bermuta, Bieira eta ahuakatea, eta legatza ximendutan errea eta perretxiokak.

Jatetxea atsegina da, baita gardena, argitsua eta lasaia ere. Dekorazioan, egurrak, harria eta baserri-giroa nagusitzen dira. Janariari dagokionez, minimalista eta goi-mailakoa da, baina beste ezaugarri bat ere bada aipatzekoa: sukaldariak begibistan daude eta bezeroen aurrean prestatzen dituzte platerak. Guztira, 65 jankiderentzako lekua dago jatetxean, eta gainera 35 lagunentzako jantoki pribatua ere badago.

"Sondikako aukera-Sondika aukeratu" programa

Programa herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburua duten 82 proiektu osatzen dute. Udalak esku artean dituen lehentasunak eta egitasmoak hedatu nahi ditu herritarren artean, sondikoztarrek proiektu bakoitzaren gorabeheren berri izateko. "Gure kudeaketa-eredua lau haizeetara zabaltzea nahi dugu, herritarrek zertan gabiltzan argi eta garbi jakiteko", esan du Xabier Zubiaur alkatea. Programa Udaleko webgunean dago gaztelaniaz irakurgai, eta, irailetik aurrera leku berezia edukiko du www.sondika.eus webgunean.

Egitasmoa lau ataletan dago banatuta, proiektuak argiago sailkatzeko. Garapena atalak hirigintza jorratzen du; Jendea atalak, laguntza eta pertsonak; Bihotza atalak, kultura, euskara eta historia; eta Auzoak atalak, auzoen garapena. Egitasmoak aintzat hartzen dituen 82 proiektuetatik, 13 dira lehentasunekoak; 42, bigarren mailakoak; eta 27k martxan dagoen zerbitzuren bat hobetzea dute helburu. Lehentasuneko artean, besteak beste hauek aipatu ahal dira: auzoko zinegotzia sortzea, Euskararen Plan Estrategikoa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako III. Plana, langabezia-tasa % 10aren azpian jartzea eta Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra onartzea eta garatzea.

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, astoburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Familia-giroa, Aldekoneko jaietan

Jai-egitaraua

Uztailak 25, martitzena. Santiago

- 11:00: Kalejira.
- 11:30: Txu-txu tren.
- 12:30: Meza. Ostein, dantzak Lainomendi taldearekin.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Mus arina.
- 17:30: Paella txapelketaren sariak ematea.
- 17:30: Txu-txu tren.
- 18:30: Eusko zumba eta mozerro jaia.
- 19:30 Tortillak aurkeztea.
- 20:30: Tortilla txapelketaren sariak banatzea.

Uztailak 26, eguaztena.

Santa Ana

- 11:00: Kalejira.
- 12:30: Meza.
- 13:00: Sukalkia dastatzea, txosnan.

Uztailak 31, astelehena.

San Inazio

- 11:00: Kalejira.
- 11:00: Haurrentzako tailerrak.
- 12:30: Meza eta kopaua.
- 13:15: Nazioarteko folklore emanaldia, Carmen López folklore dantza taldearen eskutik (Kolonbia).
- 19:00: Herri kirolak.
- 20:30: Musika ibiltaria, tabernetatik.

Abuztuak 3, eguena.

San Esteban

- 12:00: Meza.
- 13:15: Kopaua.
- 14:30: Sukalki txapelketa.
- 16:30: Musa.
- 18:00: Umeentzako ikuskizuna.
- 20:00: Sariak banatzea.
- 20:00: Jaien amaiera.

Lerro hauek idatzi orduko, behin betiko egitaraua itxita egon ez arren, Endika Cienfuegos Derioko kultur zinegotziak jaietako ildo nagusiak aurreratu dizkigu. "Iaz, familia-giroaren aldeko apustua egin genuen, eguneko giroaren aldeko apustua, eta uste dugu asmatu egin genuela. Beraz, aurten ere estrategia berari jarraituko diogu".

Txu-txu trenak eduki zuen arrakasta kontuan hartuta, Santiago egunean ere eskainiko da zerbitzu hori goizez zein arratsalde, herritarrek jai-guneraino igotzeko. "Bestetik, gastronomia lehiaketa, Lainomendi dantza taldearen saioa eta mozerroen jaia ere oso arrakastatsuak izaten dira". Jaiak nobedadeak ere ekarriko dituzte. Hala, San Inazio egunean, puzgarrien ordeztailerrak egongo dira. "Alde batetik, euririk balego, ezin izango liriteke puzgarriok ipini; eta bestetik, umeek

badakite koltxoneta barik jolasten. Ondo pasatzeaz gainera, tailerretan ikasteko aukera ere edukiko dute". Gauean ere, dantzaldia egon beharrean, musika talde bat ibiliko da tabernaz taberna kantatzen.

"Azkenik, San Esteban egunean, betiko moduan, kopaua eskainiko da eta gastronomia lehiaketak egongo dira. Baita nobedaderen bat ere, arratsalderako umei zuzendutako ekintza bat antolatzeko asmoa dugulako. Era berean, baliteke musika talde bat ekartzea jaien amaierarako, eta zerbitzu jateko ipintzea".

Nazioarteko folklore emanaldia harrera ona izaten duen ekintza da. "San Inazio egunean, Kolonbiako talde bat etorriko da hango dantzak erakustera. Normalean, jendetza handia batzen da ekitaldi honetan eta ez dago esertzeko lekurik. Gainera, kopaua ere egongo da. Arrakasta bermatuta dago, beraz".



Carmen López folklore dantza taldea. a: Sergio Aguilar.



Herri olinpiadak, nobedadea Goitioitzako jaietan



a: Gaizka Peñafiel

Jaiak uztailaren 7tik 9ra bitartean izango dira Lezamako auzoan, eta bertako jai-batzordetik adierazi digutenez, koadrilaren arteko herri olinpiadak izango dira aurtengo nobedade nagusia. "Koadrilak lauzpabost probari egin beharko diete aurre. Herri kirolekin zerikusia edukiko dute, baina apur bat moldatuko ditugu, ondo pasatzeko eta giro alaiaren egoteko. Probak zertan dautzan? Bada, sorpresa izango da hori. Sei kidek osaturiko taldeak izan beharko dira; eta parte-hartzaileak, 16 urtetik gorakoak. Gainera, genero ikuspegi batetik, baloratuko da taldean hiru emakumezko eta hiru gizonezko egotea". Irabazleek txosnan edo herriko dendetan gastatzeko diru-txartel bat jasoko dute sarizat.

Enduro txapelketa klasiko bat bihurtu da jaietan. "Mendi goian hasi eta beheko aldean bukatzen den froga honek jaietsiera gogorak eta igoera aldapatsuak tartekatzen ditu. Abiadura handian doazela, txirridulariek arriskuz betetako ibilbide bat gainditu behar dute. Bakoitzak hiru txanda egin behar ditu eta denbora-

rik onena lortzen duenak irabazten du". Aurreko urteetan, 30 txirridulari inguruk hartu dute parte txapelketan. "Kategoria bakoitzeko hiru sari ematen dira: txapela eta dirua, irabazlearentzat; eta dirua, besteentzat".

Sutan

Bestetik, paella txapelketa jaietako ekitaldirik jendetsuena da. "Giro polita sortzen da. Koadrilak goiz goizetik batzen dira landan, bakoitzak bere tresnekin. Lekua jendez gainezka dago eguerdirako, eta paellak, sutan! Lehia apur bat dago taldeen artean, ea nork egiten duen paellarik goxoenal!". Urtero 35 paella inguru aurkezten dira lehiaketara eta epaile herritarrak ibiltzen dira. Saria Lezamako dendan, txakolingileen eta enpresen eskutik da.

Ohikoa den moduan, txakolinaren dastatzea egongo da domekan, baina aurtentzako mago bat ibiliko da Arkaitz Estiballes bertsolariarekin. Dastatzen duten txakolinak zelako sentazioak transmititzen dizkien azaldu beharko dute, txakolin hori norena den jakin barik.

Jai-egitaraua

Uztailak 7, barikua

- 18:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 18:30: Umeentzako puzgarriak.
- 21:00: Diskofesta, Oihan Vegaren eskutik.

Uztailak 8, zapatua

- 10:00: Mahaiak eta aulkiak banatzea.
- 10:30: "Goitioitza ezagutu", Zorritzketan euskara elkartearen eskutik.
- 12:00: Kurutze dantza taldea.
- 13:00: Paella Txapelketa izena ematea.
- 14:30: Paellak aurkeztea.
- 15:00: Enduro Txapelketa.
- 18:00: Herri olinpiadak.
- 19:00: Enduro txapelketaren sariak banatzea.
- 20:00: Dantzaldia, Patxi eta konpainia taldearekin.
- 22:30: Erromeria, Batek daki taldea.

Uztailak 9, domeka

- 13:00: Txakolina dastatzea, magiaz eta bertsoz jantzita. Arkaitz Estiballes.

**Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA**
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA
Airetza dokorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

**OPTIKA IKUSLAN**
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

**TALLERES JUAN ANDRES**
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZTATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Sinadurak batzen dabilta, trenez aldatzeagatik ordaindu behar ez izateko

Lezamako tren-zerbitzua apirilaren 8an ipini zen berriro martxan. Hala ere, txorierritarrok ordaindu behar dugu trenetik metrora aldatu egin nahi badugu eta hori, txorierritar batzuen iritziz, ez da zilegia. "Hauteskundeetan entzun behar izan genuen Txorierrri metro-sarean sartuko zela. Baina iruzur handia da, Alde Zaharrean metroa hartu nahi badugu, beste bidaia bat ordaindu behar dugulako", esan digu Unai Ugalde lezamarrak.

Herrian kexa bera zuten lagunak elkartu eta sinadurak batzen hasi ziren. "Hau Txorierrriko bidaiariekin baino ez da gertatzen, izan ere, ibilbidea 3. linearen Bilboko tartean hasi edo amaitzen bada, 1. edo 2. lineetara trenez aldatzeak ez dakar kostu gehigarririk. Beste behin ere txorierritarrok bigarren mailako bizkaitartzat jotzen gaituztelako", dio. Getxoko edo Sopelako lagunak, aldiz, "lehenengo mailakotzat" hartzen dira, "Bilbo osoan zehar bigarren bidaiarik ordaindu gabe" bidaiatzeko aukera dutelako.

"Gaur egun, 550 sinadura inguru lortu ditugu Lezaman". Gainera, elkartekoek Udalarekin hitz egin dute. "EAJ eta EH Bildu alderdiekin egin genuen bilera bat eta handik gutxira Lezamako Udaltzabak aho batez onartu zuen gure aldeko mozio bat. Era berean, esan ziguten Txorierrriko alkateek gure aldarrikapena



Bizkaiko Garraio Partzuergora eroango zutela".

Txorierrriko erakundeak

Igotz López Mankomunitatearen presidentek argitu digunaren arabera, oraindik ez dute Partzuergoarekin bilera "formalarik" izan, baina harremanetan egon dira haiekin. "Laster bilera bat egingo dugu. Agian ez gara metroren barruan egongo, baina Bilboko metroko sarean egon bagaude. Arduratuta gaude trenaren gaiarekin".

Sondikan eta Derion ere batu dira sinadurak, (guztira 900 inguru) eta kexak alkateei zein Arartekoari jakinarazi dizkiete. "Hurrengo pausua ahaldun nagusia da. Oso haserre gaude", esan digu Mar-

gak, Sondikatik. "Gurea herritik sortutako ekimena da, baina ordezkari politikoek lagundu behar digute. Guk esan eta esan aritzen jarraituko dugu, gure eskaera gauzatu arte", aipatu du Unai.

Euskotrenetik horixe adierazi digute: "Trenetik metro sistemara igarotzerakoan beti kobratzen da tren-aldaketa. Horrela gertatzen da Txorierrriko lineatik L1 edo L2ra igarotzerakoan, eta Durangotik, Bermeotik edo Ermuatik datozen Euskotreneko erabiltzaileei ere gauza bera gertatzen zaie. Metro sistema barruan, L3tik L1era edo L2ra igarotzeko, Euskotrenek akordio bat itxi zuen Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin, enpresa ezberdinak izan arren, baldintzak berdinak izateko, eta L3ko bidaiariak ez kaltetzeko".

Aldundiak 229.425 euro zuzenduko ditu, Txorierrriko gazteen prestakuntza eta enplegua sustatzeko

Bizkaiko Foru Aldunditik jakinarazi duten moduan, "Gaztedi Txorierrri" hitzarmena sinatu dute eta hara 229.425 euro zuzenduko dira. Hitzarmena 2019. urtera arte egongo da indarrean, eta dirua gazteen prestakuntzari, enpleguari eta ekintzailtzari lotutako ekintzak bultzatzeko erabiliko da. Txorierrriko hitzarmenaz gainera, Aldundiak beste hiru hitzarmen sinatu ditu Arratian, Durangaldean eta Ezkerraldean. Lau hitzarmenek bat egin dute apirilean Busturialdea, Enkarterri,

Lea-Artibai, Meatzaldea, Mungialdea eta Nerbioi-Ibaizabal eskualdeetarako onartutako beste sei hitzarmenekin.

"Bizkaia Goazen Gazteak" lelopean, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du 2017. urtea gazteen urtea izango dela. Horren haritik, "Gaztedi Bizkaia 2020" foru-estrategiaren bidez lurraldeko gazteria-politikak koordinatuko ditu, eta tokiko eremuan gazteei zuzendutako jarduketak integralak sustatuko ditu. Hala, Europako politikekin egiten du bat eta zortzi jar-

keta-eremu ditu: hezkuntza eta prestakuntza, enplegua eta ekintzailtza, gizarte esku-hartzea, osasuna eta ongizatea, kultura eta sormena, gizartearekiko konpromisoa, parte-hartzea eta nazioartekotzea.

Sinatutako eskualdeko lankidetzahitzarmenetan lehenesten dira, batetik hezkuntza eta prestakuntza, eta bestetik enplegua eta ekintzailtza. Helburua da gazteei kalitate oneko prestakuntza eskaintzea, lan-merkatuko joeretara egokitzatzen dena.



Byron Zurdo eta Mikel Uriarte | Kafearen jaunak

Marradun alkandora jantzita eta irribarretsu, Byron eta Mikel Derioko Adarve tabernako barraren atzealdean egiten dute lan. Lankide biek zortzi urte baino gehiago eman dituzte kafe ikastarotan eta Txorierriko kaferik onena zerbitzatzeko: "Sekretua esnea 63-73 gradu bitartean berotzean datza" azaldu du Byronek. Horrez gain, Mikelek adierazi du ehoketa eta behar bezalako makinak izatea oso garrantzitsua dela kafe ona egin ahal izateko. "Munduko kaferik onena eduki arren, behar bezala landu egiten ez bada, alferrik da".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti / www.jongoikouria.com

Sekretua esnea berotzea ete zan? Zuen aitortzak hartu gaitu gu sorpresan. Goizero Adarvera hurbildu gaitzean sekretua ezin da horren altu esan.

Itallen Bertso Eskola

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarratan erreta

LEKUNBIZ AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIJA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Peluquería y Estética

94 455 81 44
Anguleri 2. behea Larrabetzu-Bizkaia

FRUTAK BARAZKIAK

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Euria, lokatza eta rock 'n rolla, bluesa, soula...



El Gran Wyoming y los insolventes taldea

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Txorierri nazioarte mailako musikariren topagune izan da berriro ere Music Legends Festivalaren bigarren edizioa dela eta. Aurtengoan, iaz baino askoz jendetsuagoa izan den edizioan, besteak beste, Georgie Fame, Van Morrison, El Gran Wyoming y los Insolventes, The Steepwater Band, Imelda May, Alpha Blondy & the Solar System, Gov't Mule eta Ruper Ordorika izan genituen ekainaren 2an eta 3an, Ola zentroko eszenatokian.

Aste osoan eguraldi zoragarria egon arren, hilaren 2an, Nafarroako Motxila 21 taldea jaialdia inauguratzen hasi orduko zerua guztiz estali eta euria bota ahalean hasi zen, baina hori ez zen aitzakia izan ikuskizuna bertan behera uzteko. Ordorikaren kontzertuaren ondoren jaialdiko plater nagusia iritsi zen, Georgie Fame mitikoaren Hammond-aren eta 71 urteko Van Morrisonen saxoaren eskutik. Kontzertua hasi aurretik, Belfasteko Lehoiak eskaria egin zien pistan zeuden 4.000 pertsoneri kontzertuan ez egiteko argazkirik, eta ez grabatzeko bideorik. Harri-dura aurpegiak, eta txistu batzuk entzunda, kantari britainiarrak kontzertu apala eskaini zuen, eta lehen egunaren ginda Sara Iñiguez-en Rubia Sunshine Pop taldeak ipini zuen, *Barman* izeneko hirugarren EPa aurkeztuz.

Mud Candies bilbotarren bluegrassak bigarren eguna hasi zuen; eta, ordubete-



The Steepwater Band



Rubia taldea



Imelda May

Alpha Blondy & The Solar System



ra, gorriz jantzitako Wyomingen taldeak erreleboa hartu eta bertsio famatuz beteriko zuzeneko eskaini zuen. Euria gogor hasi zen baina, hala ere, jendetza batu zuen madrildarren kontzertuak. Jaialdiak berak kapusaiak eta kapak erosteko aukera eskaini zuen –barrutian aterkiak sartzea debekatuta zegoen–, eta benetan beharrezkoak izan ziren: kontzertuen artean eta mela-mela eginda, jendea txosnen karpan aterpea bilatzen ibili zen. Euriak The Steepwater Band rock-blues taldearen kontzertua ordu erdi atzeratu zuen baina, azkenean, eta instrumentuak plastikozko olanekin estalita, Chicagoko taldeak merezitako kontzertua eskaini zion publikoari. Ondoren Imelda Mayren soul dotorea, Alpha Blondyren reggae aldarrikatzailea eta Gov't Muleren gitarroen lekukoak izan ziren bertara hurbildu ziren pertsonak.

Van Morrison



Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Letzaola plaza, 1
48170 Zamudio
94 452 14 49

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Zergaitik aukeratu gai hori?

Gizarte eta Hezkuntzaren ikerketarako masterra izan da eta hasieratik eduki dot argi esparru honeetariko bat jorratu-ko nebala: euskerea edo balioak. Izan be, irakasle-ikasketak egiten edo praktikan edo begirale ibili nazenean, ikusi dot Hezkuntzan horreek ez dirala behar dan moduan lantzen. Irakasle batek animatu ninduan euskal pailazoan lana aztertzea, hareek esparru biak jorratzen dabezalako, eta ez neban zalantzarik izan.

Zelan antolatu zenduan lana?

Lanagaz urrian hasi nintzan eta, egia esan, buruhaustea ekarri eustan hasieran, aurretik inork ez eukalako halako lanik aztertuta. Gainera, gaia komikotasunetik harago landu gura neban. Akabuan galdera honi erantzun behar neutsala erabagi neban: zelan sortzen da eredu pedagogiko bat izaera hezitzailea daukan euskarazko pailazogintzaren bidez? Eta horren barruan hiru helburu bete behar nebazala: beraiek benetan sortutako eredu pedagogikoa dan egiaztatzea; proiektuaren ezaugarriak aztertzea; eta Hezkuntzari egiten deusien ekarpena be aztertzea. Horretarako, alkarrizketatu nebazan taldeka zein bakarka; puzzleak, jolasak eta askotariko materiala aztertu neban; eta euren ikuskizunetara eta hitzaldi pare batera joan nintzan.

Eta eurek sortutako eredu pedagogikoa da?

Bai. Irakasleak ziren eta Takolok Pirritx (gizona zan hasieran eta izena halan eban) eta Porrotx sortu ebezan, garai hanttan Lasarte-Orian ez egoalako ezer ume-

“Hezkuntzan metodolo topatzen gabiliz, eta hemen

AINHOA GANA DAÑOBEITIA | irakaslea eta ikerlaria



Lezamarrak Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen pailazogintzea aztertu eta horren gainera lana aurkeztu dau master amaierako proiektu moduan. Lan handia egin dau; buruak gidatuta, baina sentimentuetatik abiatuta.

Mundua, danona

Ainhoak Haur Hezkuntza ikasi dau. “Ez dakit bokazioa dan, baina beti euki dot harreman estua hezkuntzagaz eta argi neban haur hezkuntza egingo nebala. Halanda be, ikasketak amaitu eta erabagi neban neure burua gehiago ikusten nebala nagusiei begira, unibersidadean”.

Ardura berezia dau hezkuntzagaz eta gizarte gaiekaz, eta enpatia handia kolektibo minorizatuek: emakumeak, homosexualak, beste arraza batzue-

takoak... “Gizartean dagozan ezgardintasanak gaintzeko, beharrezkoa da herri-gintzan aritzea, eta horretan danok inplikatzeta. Guztiontzako mundu baten alde egin behar dogulako, azken baten, guztion eskubidea dalako”. Eta holan, Hamadako izarrak alkarreagaz dabil alkarlanean eta Aste Santuan saharar errefuxiatuen kanpamentuetan izan da. “Pizzeria bat ipinten lagunduko deutsegu. Ha familia aurrera atera behar daben eta baliabiderik ez daben andreok kudeatuko dabe”.

Bestetik, kirol arloan be oso pozik dabil lezamarra. Derioko Emakumezkoen futbol taldeko jokalaria da, eta Euskal Ligara igotzea lortu dabe. “Apaltasunetik hasi ginan eta gauza izan gara taldea urtero-utero aurrera aterateko. Bestetik, kirol arloan be oso pozik dabil lezamarra. Derioko Emakumezkoen futbol taldeko jokalaria da, eta Euskal Ligara igotzea lortu dabe. “Txikitasantetik hasi ginan eta gauza izan gara taldea urtero-utero aurrera aterateko. Argi utzi dogu Txorierrin, kirolean, emakumeok be euki ahal dogula gure oihartzuna”.

gia barriak daukagu bat"



entzat euskeraz. Pailazo klasikoaren eskerak kopiaren hasi ziran, eta gero gizartean dagoan errealidade ezberdinak eza-gutu eta beste alarte batzuk batera lanean hasi ziran neurrian, euren pailazogintza sortzeari ekin eutsien. Holan, azpimarratzekoa da Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek alarteak batera egin daberen lana. Izan be, hasiera baten euren helburua umeei euskera modu alai baten transmititzea bazan, herriko eragileak alartanean ibilita, balioak be transmititzen hasi ziran, eta eragile horre-



ekaz hainbat proiektutan parte hartzen. Azken baten, herrigintzatik sortu ziran, herrigintzatik elikatzen dira eta herrigintza elikatzen dabe. Gainera, nire ustetan, pailazo ikertzaileak be badira, momentu oro dabilzalako errealidadea ikertzen, eta Hezkuntzea eta gizartea bera eraldatzen joan ahala, eurek be moldatzen dabe euren pailazogintzea.

Eredu pedagogiko horren ezaugarriak?

Herrigintza, euskera, alaitasuna, balioak, alartlana, besteekiko enpatia... Oso izaera ezberdinak alarteak dabilz harremanetan, gai eta lesbianakaz zein ijitoakaz eta gaixotasun arraroak daukizan umekaz, adibide batzuk ipintearren, eta horreentzako guztientzako mundua aldarrikatzen dabe, demokratikoa dana eta inklusioa ardatz daukan mundua hain zuzen be.

Hezkuntzari egiten deusien ekarpena?

Handia da; hezkuntza formal, ez-formal, zein informalar. Alde batetik, sortzen daberen material guztiak helburu pedagogiko eta kultural bat dauka. Eta bestetik, balioak lantzen daberean mezuak botatzen dabere euren ikuskizuntan, umeentzat ez ezik familia osoarentzat be badirenak. Hezkuntza ez-formaletik, euren pailazogintzaren bidez, euskal gizartea kontzientziatzen dabilz, eta komunitadea mobilizatzeke herri hezkuntza bat garatzen. Hainbat errealidade ikusi eta hareen gainean egiten daberen

gogoeta praktikara eroaten dabe. Hezkuntzan metodologia barriak topatzen gabilz, bada, hemen daukagu bat, orain arte aztertu ez dana.

Ze onorio nagusi atera dozu lanetik?

Euskal pailazogintzaren bidez herritartasunaren hobekuntzea eta gizarte aldatetea lantzen dabilzala. Euren ikuskizunak-eta ez dira bakarrik barre egiteko; horreetan, denpora guztian badago kutsu pedagogiko bat. Alarteak eta euren proiektuak erakusten dabere, balioak zabaldu, gizartea kontzientziatu... Mundua aldatu gura dabe, eta injustiziei aurre egin. Umorea erabilten dabe horretarako, euren esanetan, umorea bizitzaren aurrean eduki behar dan jarrera dalako. Gainera, euskaldunak izatea ez da kasualidadea herrigintzatik holango proiektu bat sortzeke. Euskaldunok herri txikia gara eta txikia zarenean besteakaz enpatia gartzten dozu. Horregaitik sortu eben pailazogintza hezitzaile hau, hainbat beharri zani erantzuna emoteko.

Lan handia egin dozu.

Eta gustura. Ikaskideak gogaituta ibili dira momentu batzuetan; baina ni, aurrea jarraitzeke gogoagaz beti. Lana emozionetatik abiatuta egin dot eta motibazio handia izan da niretzat. Doktoretza egiteke asmoa daukat eta ha be euren proiektu pedagogiko, materiala edo parte hartzen daberen proiekturen baten inguruan egitea gustatuko litzakit.

"Hezkuntzea eta gizartea bera eraldatzen joan ahala, eurek be moldatzen dabe euren pailazogintzea"

**EGUNEKO MENUA**
lehenengo platera
bigarren platera
postria
ogla
edaria **9€**

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

**HAUR-MODA**
TxIMELETA
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zainzu: Berruk
Logopedia
Podologia
Krimasajea

**clínica dental ZAINDUZ hortz klinika**

Txorient etorbidea, 9 - Loria | Anaga eskina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Gazteen talentua eta enplegagarritasuna sendotzea

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean, gazteekin elkarlanean jardutea beti izan da lehentasun handiko ardatza; orain, gainera, beste bultzada bat jasoko du Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatuko dugun lankidetzahitzarmenaren bitartez.

Hitzarmena sinatu ondoren jasoko duen finantzaketari esker, Mankomunitate gai izango da gazteentzako prestakuntza sustatzen duten, enplegagarritasuna hobetzen duten, talentua sortzen duten eta ekintzailtza-proiektuak ahalbidetzen dituzten programak sendotzeko. Era horretan, besteak beste, gazteen enplegua sustatzeko programa berriak gauzatuko dira Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierrri).

Mankomunitateak zortzi ekintza-ildo nagusi izango ditu; hori bat dator Foru Aldundiak gazteria-arloan gauzatzen dituen esku-hartzeekin, eta, aldi berean, bere egiten ditu Europar Batasunaren 2010-2018 aldirako Gazteria Estrategiako jarduketaratzak.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean, kualifikazio profesionala hobetzeko jarduketa-ildoak abiaraziko dira (biltegiko laguntzaile-ikastaroa eta uretako sorospent-ikastaroa), gaitasunen prestakuntza ahalbidetuko da (lehen sorospentak, marketing digitala eta enpresa-kudeaketa), eta bikaintasuna eta talentua sustatuko dira ("Yo puedo. Sacar partido a tu talento" programa).

Enpleguaren eta ekintzailtza alorrean, laneko orientabidea landuko da, bai eta autoenplegua eta ekintzailtza ere (nazioartekotze-bekak, Txorierrri bekak, enpresak sortzeko komunikazioa eta aholkularitza). Gainera, kontratatzen laguntzeko eta enpresa berritzaileei laguntzeko ildoak ere egongo dira.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak lankidetzahitzarmena sinatuko du Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eskualdean 2017-2019 aldirian "Gaztedi Txorierrri" proiektua ezarri ahal izateko.



Bestalde, hainbat programa eta jarduketaren bitartez gizarteko esku-hartzea (gizarteratzea, familia eta egoitza-emantzipazioa), osasuna eta ongizatea (ohitura osasungarriak, mendekotasunen prebentzioa eta jorkabide arrakastuen prebentzioa), gizarte-konpromisoa (boluntarioritza, ingurumena, berdintasuna eta aniztasuna), parte-hartzea eta nazioartekotzea landuko dira.

GIB desagertzea

Esparruaren arabera, honako hauek izango dira ekintzen kudeatzaileak: komunitateko esku-hartzeko zerbitzuak, berdintasunekoak, euskarakoak, EGAG Txorierrri, kaleko hezitzaileak eta udalerrietako Gaztele-

kuak. Hala, Gazteentzako Informazio Bulegoa erabiltzeari utziko zaio eta Mankomunitateak dituen baliabideak optimizatuko dira; izan ere, Mankomunitateak Txorierriko gazteei laguntzen jarraituko du, programak garatuz eta informazioa hedatuz, Mankomunitateak dituen gainerako zerbitzuen bitartez.

GIBek Mankomunitateak gazteriaren arloan eskaintzen dituen esku-hartzeen zati txiki bat baino ez zuen ordezkatzeko, eta Bulegoa erabiltzeari uzteko arrazoia da teknologia berriei esker informazioa eskuratzea askoz ere errazagoa bilakatu denez, gero eta informazio gutxiago eskatzen zela aurrez aurre. Txorierrin bizi diren gazteek egun eskura dituzten baliabideak ez dira zerbitzua sortu zenean zitezkeen bezalakoak, eta horixe adierazten da zerbitzuaren memorian. Gainera, bai udalek, bai beste hainbat eragilek (Hezkuntza Saila, ikastetxeak, lan-orientabideko eta lana bilatzeko zentroak, Osasun eta Etxebizitza Sailak...) informazio, dokumentazio eta aholkularitza berezitua eskaintzen dituzte.

*Gazteentzako
Informazio Bulegoa
erabiltzeari
utziko zaio*

*Gazteen enplegua
sustatzeko programa
berriak gauzatuko dira
EGAG Txorierrin*



Hondakinen bilketa optimizatzeko teknologiak dituzten kamioiak



*Zehatzago ezagutu
ahalko da zenbat
hondakin sortzen diren
udalerrri bakoitzean*

Proiektuaren helburuen artean, besteak beste, sortzen diren hondakinen bolumena murriztea, birziklatze-tasa handitzea eta teknologia berriak baliatuz hondakinen kudeaketa hobetzea daude.

Ildo horretan, tratamendu eta analisi berritzailea egingo zaie ibilgailu berriek bildutako datuei; hartara, modelo estatistiko-en bitartez edukiontzia zenbat beteko diren aurreikusi eta bilketaren ibilbideak benetako beharretara egokitu ahal izango dira. Horri esker, bilketaren kostua benetan sortzen diren hondakinetera egokitzeaz gain, kamioien zirkulazioak eragindako ingurumen-inpaktua murrizteko modua ere edukiko da.

Kamioiak egiten duen ibilbidea gordezen du, halaber, eta etengabe bidaltzen ditu posizionamenduari eta bildutako edukiontziei buruzko datuak berariaz horretarako diseinatu den datu-kudeaketako plataforma batera. Hala, ager litezkeen gorabeherak hauteman daitezke baita ere, eta zerbitzua optimizatzeko aldera kontuan hartu.

Bi ibilgailu berrik edukiontzietan bildutako kopuruei buruzko datuak hartu eta zerbitzuaren maiztasuna benetako premietara egokitzeko aukera emango dute, analisi estatistikoaren bitartez.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak bi kamioi gehitu ditu hondakinak bildutako ibilgailuen flotara. Kamioiek pisatzeko sistema bat dute, baita ibilbidearen jarraipenarekin lotutako beste sistema bat ere; haiei esker, bilketaren maizta-

sunak ahalik eta hoberen egokitzeko lan egin ahal izango da. Ibilgailu horiek aldizka erabiliko dira Txorierriko udalerrri guztietan; hala, zehatzago ezagutu ahal izango da zenbat hondakin sortzen diren guztira udalerrri bakoitzean.

Zamudioko Udalak eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Europako Waste4Think proiektuaren parte-hartzearen esparruan gauzatzen ari diren ekimen multzoan kokatzen da berritasun hau.

Txorierriko Mankomunitateak antolatutako txapelketa honek aisialdian euskaraz disfrutatzea, erabileran eragitea eta hizkuntza lantzea dauka helburu nagusiz. Hamar eta hamaika urte bitarteko 194 umek hartu dute parte txapelketan.

Aurtengo edizioan Larrabetzuko bikotea geratu da lehenengo (Ismene Pico eta Andrea Martinez de Alegria), Deriokoa bigarren (Aner Cespedes eta Markel Larrea), Sondikakoa hirugarren (Jone Mezo eta Lucia Fernandez), eta Deriokoa laugarren (Unai Marina eta Julen Piñas) Lau bikoteek familian disfrutatzekeo bidaia jaso dituzte.

Mihiluze VI. txapelketa arrakastatsua





“Athleticen filosofiak gogortzen gaitu”

IRAIA ITURREGI | futbolaria

Iraia Iturregik futbolean jokatzeari utzi dio aurten. Bere ibilbide oparoan, lau liga irabazi ditu eta Athleticen emakumezkoen taldean partida gehien jokatu dituenetako bat da. Loiuztarra pozik dago, agian bere bizitzako klubean jokatzeko aukera izan duelako. Etorkizunari begira, entrenatzailea izango da. Athleticena ote?

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zergatik utzi orain?

Nire burua goi-mailan beste pare bat urte lehiatzeko gauza ikusten dut, baina momentu on batean utzi nahi izan dut beti. Ez nuen futbola gorrotatu nahi. Apur bat nekatuta nago, bai fisikoki, bai mentalki, eta entrenamenduetan hori nabaritzen dut. Exijentzia handiko neska naiz. Beraz, zelan exijituko nieke besteei, ni en-

trenamendu bakoitzean nire % 100ean egoteko gauza ez banaiz?

Zelan daramazu? Barneratu duzu dagoeneko ez zarela futbolaria?

Ondo daramat. Agur esateko prentsaurrekoa eman genuen astea nahiko hunkigarria izan zen, baina orain lasaiago nabil. Agian irailean, denboraldia hasten denean, futbola botako dut faltan, baina momentuz, atzera begiratzen dut eta ondo sentitzen naiz. Pozik nabil.

Zer deritzozu zure ibilbideari?

Hainbat bizipen eta garaipen lortu ditut, baina hau da harrotasun handiena ekartzen didana: hortik momentu txarretan taldea gai izan da indartsuago ateratzeko.

Zer izan da momenturik onena? Eta txarrena?

Onak pilo bat izan dira, baina bi auke-ratuko ditut bereziki: lehenengo eta azken liga. Lehenengoa, lehehengoa izan



“Apur bat nekatuta nago, bai fisikoki, bai mentalki, eta entrenamenduetan hori nabaritzen dut”

“Lehenengo Liga inflexio-puntu bat izan zen emakumezkoen futbolerako”

“Pena da Koparen bat irabazi ez izana, baina atzera begiratzen badut, pilo bat garaipen eta arrakasta lortu ditugu”

2005ean. Gola berezia izan zen garaipena eman zigulako, eta gainera, gol olinpikoa izan zelako.

Lau Liga irabazi dituzu, baina Koparik ez...

Zaila da titulu bat irabaztea eta nik batzuk irabazi ditut. Behin baino gehiagotan Kopa irabazteko hurbil-hurbil ibili gara: Espanyolen kontra luzapenean galdu genuen; Barçaren kontra, penaltietan... Tira, pena da baten bat irabazi ez izana, baina atzera begiratzen badut, pilo bat garaipen eta arrakasta lortu ditugu.

Zurekin batera Eli Ibarrek eta Irune Muruak ere utzi dute taldea, partida gehien jokatu dituzten jokalarietakoa. Babes barik uzten duzue taldea?

Ez, ez dut uste, taldean beterrano piloa gelditzen direlako. Kluba nire kontratua luzatzen saiatu da, baina beterranook apurka-apurka uztea hobe dela esan diet nik, denok batera egitea baino.

Esaten da Athletic klub berezia dela. Emakumezkoen taldea ere berezia da?

Filosofiak ezberdin egiten gaitu. Talde homogeneoa daukagu, kultura berekoa, eta horregatik sentimendu handiagoa

zelako eta 35.000 lagun batu genituelako San Mamesen. Hori inflexio-puntu bat izan zen emakumezkoen futbolerako. Eta azkena, irabazi gabe hainbat urte eman genuelako. Momenturik txarrenari dagokionez, San Mamesen Bartzelonaren kontra galdu genuen Liga aipatuko nuke. Hogeita hamar jardunaldietatik 29tan ibili ginen lidergoan, eta azken partidaren non eta etxean, galdu genuen. Barça oso talde ona zen, baina presioa guk geneukan. Guk ez genuen emozioak kudeatzen jakin. Dena zegoen prest guk irabazteko, baina porrot egin genuen.

Guztira 64 gol sartu dituzu. Zein izan da bereziarena?

Lasesarren jokatzeko genuela, 94. minutuan Oviedoren kontra sartu nuena,

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 4 DERIO 944541655

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HARAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ
MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko etortzeagaitik

“Hiruzpalau urte barru neskak profesionalak izango dira”

Iraia Iturregi Sustatxa (Loiu, 1985) etxean hasi zen futboleko jolastean. “Ate bat geneukan lorategian eta bertan jokatzeko nuen lehengusuarekin. Eskolan ere jokatzeko nuen mutilekin”. Handik, Iraia Sondika taldera joan zen. “Gaztetan Sondikako partidak ikusten nituen eta egun batean nire amak esan zien nik ere jokatu nahi nuela eta horrela hasi nintzen”.

Hurrengo urratsa Leioa taldea izan zen eta azkenean, Athletic. “Leioan Bigarren Mailako Liga irabazi genuen eta igoera fasean geundela esan ziguten Leioa Athletic bihurtuko zela. Guretzat itzela izan zen. Hurrengo urtean Estatuko lehenengo mailan jokatu dugu eta gainera, non eta Athleticen!”.

Iraia 14 urte zituela hasi zen futboleko federatuta jokatzeko eta, harrezkero, emakumezkoen futbola aurrerapauso asko eman ditu. “Hasieran, hareazko zelaian aritzen ginen; entrenatzeko zelaiaren laurdena baino ez ziguten uzten; batzuetan ez genuen aldagelarik... Athleticen ere baldintzak gero eta hobekiago izan dira: lehenengo urteetan ez genuen ezer kobratzen; gero, dietak kobratzen hasi ginen; ostean, kotizatzen hasi ginen eta gaur

“Lehenengo mailan jokatu genuela esan ziguten, eta gainera, non eta Athleticen!”

egun jardunaldi erdiko kontratuak ditugu. Era berean, neskek La Liga eta AFE (Espainiako Futbolari Elkarte) erakundeetako kideak gara eta gure partidak telebistaren bidez ikusteko aukera dago”.

Iraia esanetan, “laster erabateko profesionalizazioa” izango da. “Atletico de Madrid eta Barcelona taldeetako jokalarien % 100 dira profesionalak eta joera hori zabaldu egingo da. Esan digutenaren arabera datozen hiruzpalau urteotan neska guztiak profesionalak izatea lortu behar da, hau da, soldata baten truke jokatzeko eta kotizatzea. Soldadak ez dira oso handiak izango, baina tira”.

Iraia, Athleticen

15 denboraldi.
401 partida.
64 gol.

daukagu. Era berean, zaletuen atxikimendua ere oso handia da. Athletic klub berezia da, bai horixe. Argi dago, filosofiak mugatzen gaituela jokalariek ekartzeko orduan; baina era berean, filosofiak gogortzen gaitu.

Ospe handiko ibilbidea egin duzu Athleticen, baina behin eta berriro entzun dizut irabaztea gero eta zailagoa izango dela. Zaletuak prest daude galteko?

Ziur asko, mutilei gertatu zaiena emakumeen taldeari ere gertatu zaio, hau da, hasieran titulu guztiak irabazteko hautagaia zen, baina apurka-apurka, atzerri-tarrak etorri diren heinean, irabazteko aukera txikiagoa izan da. Hala ere, talde erraldoien kontra jokatu arren, mutilak lehiakorrek dira. Agian denbora luzea emango dugu neskek Liga berriro irabazi arte, baina exijentzia altua izan behar da, eta behintzat lehiakorrek izatea eskatu behar diegu, mutilei eskatzen diegun moduan.

Urtebete eman zenuen Estatu Batuetan. Zergatik joan zinen?

Esperientzia bizi izatera eta ingelesa ikastera joan nintzen. Urtebete eman nuen bertan eta oso esperientzia polita izan zen. Florida State unibertsitatean joan nintzen, eta hori goi-mailakoa da futbolekoan. Hango futbola askoz fisikoagoa eta zuzenagoa da; hemen, aldiz, hobeak gara taktikan eta teknikan. Estilo ezberdina da. Aldagela ere oso desberdina zen, bertan zortzi herritako lagunak geundelako: australiarrek, japoniarrek, holandarrek, ale-

“Neskei behintzat lehiakorrek izatea eskatu behar diegu, mutilei eskatzen diegun moduan”

“Amerikarrak individualistak dira; guk, aldiz, garrantzia handiagoa ematen diegu kuadrillari”





“Athletic inoiz entrenatzea? Athletic nire etxea da, eta bai, gustatuko litzaidake entrenatzailea izatea”

maniarak... Ondo moldatu nintzen, baina gehienbat europarrekin ibiltzen nintzen. Amerika kulturalki zaila da, batez ere Euskal Herritik bazoaz, haiek oso indibidualistak eta lehiakorak direlako; guk, aldiz, garrantzia handiagoa ematen diegu lagu-

nei, kuadrillari.... Solidarioagoak gara. Ezaugarri bakoitzak baditu alde onak eta txarrak. Ezberdinak dira.

Futbola amaitu da. Orain zer?

Soin Hezkuntza ikasi dut eta gainera entrenatzaile titulua eta goi-errendimen-

duaren masterra ere badauzkat. Gaur egun Athelticen egiten dut lan, teknifikazio arloan, kimu, haur eta kadete mailetan. Horrek esan nahi du neskak entrenatzen ditudala, astean behin. Espero dut entrenatzaile edo prestatzaile fisiko lanean aritzea. Aukeratu ahal izango banu, nire hezkuntza zein den kontuan hartuta, nagusiekin lan egiten ikusten dut nire burua, ez umeekin. Baina tira, ikusiko dugu.

Eta Athletic entrenatzea?

Bai, zergatik ez, gustura egingo nuke hori. Athletic nire etxea da eta jokalaria moduan gogor borrokatu badut Athelticen alde, entrentzaile moduan ere gauza bera egitea gustatuko litzaidake.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EVSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK
irailean

MATRIKULA ZABALIK

B1, B2 eta C1
prestatzeko trinkoak

Mintzapraktika ikastaroak

Bulego orduak:
8:30-14:00
16:00-18:00

*Erdu geugaz,
egizu euskeraz!*

Gero eta gorago



Kaotiko taldea.

San Joan gauagaz hasi ziran loiuztarrak motorrak berotzen, herriko jai nagusiei begira. San Pedro eta Santa Luzia jaiak ekainaren 29tik uztailaren 2ra bitartean ospatuko dabez, eta Idoia Bilbao eta Asier Bilbao kultura arloko zinegotziek aurreratu deuskuen moduan, herritar guztiei zuzendutako ekintzaz beteta etorriko dira.

a: Loiuuko Udala

Txupina 20:30ak arte botako ez daben arren, eguen goizean eta arratsaldean ekitaldi batzuk izango dira herrian, besteak beste, Pedro Guallar loiuztarren organu kontzertua, aureskua, nagusien bazkaria eta dantza erakustaldia. "Nagusien bazkaria oso girotxua eta parte-hartzailea izan ohi da; nagusi asko batzen dira bertan. Bazkalostea Iñaki Basabek girotuko dau". Urte batzuk dira pregoia herriko alkarte batek irakurten dauala eta aurtan Club Li Karate Loiuik eukiko dau horren ardurea. Kartel Lehiaketaren sariak banatuko dira – irabazlea Lourdes Leal Díaz izan da- eta Luhartz erromeria taldeak amaiera emongo deutso egunari.

Barikua indartsu dator. Kalejireia eta umeentzako jolasak egongo dira goizean, eta Miriam Cepeda eta Luis Alberto

Kontzertuen artean, Manel Fuentes & The Spring Team, Kaotiko eta Kepa Junkera

Requejo herriko musikariek organu kontzertua eskeniko dabe. Gazteentzako bazkaria be egingo da eta pala txapelketaren finalurrekoak jokatu dira arratsaldean. Loiu Laztana alkarteak egindako pelikulea emongo da eta tortilla txapelketaren sariak banatuko dira. Irabazleak 150 euro jasoko dauz saritzat; 100 euro, bigarrenak; eta 50 euro, hirugarrenak. Manel Fuentes & The Spring Team-ek Bruce Springsteen-en abestiak kantauko

dabez 23:00etatik aurrera eta ostean rockagaz jarraituko dabe ordu txikiak arte. "Zaratea goizaldeko 6ak arte-edo eukiko dogu (kar, kar)".

Zapatua egun handia da Loiuoko jaietan, eta aurtan be holan izango da. "Paella Lehiaketea egiten da eta herria goizgoizetik hasten da girotzen. Laurogeita hamar koadrila inguru batzen dira, jente pilo bat, eta paellak prestaten dabezan bitartean, hamaiketako egiten dabe, umeentzako jolasak, eta tailerrak be badagoz... Gainera, aitatu beharra dago koadrilen % 99 Loiuokoak dirala eta hori oso inportantea da, bertoko jentea goizgoizetik eta egun osoan dabilelako herria girotzen. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, partzelea alde aurretik hartu behar da eta jenteak urte batetik bestera emoten dau izena. Batzuek txapelketea martxan ipini zanetik, hau da, 13 urte, daroez parte hartzen". Danera, 12 sari emongo

Erdu eta gozatu



Jaietan
euskaraz blai!



elekma

URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK

Lehenengo markak • Preziaririk onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierrri etorbidea, 25-3.N
48180 Loiu
T: 944 539 232
www.elekma.es



**TURREGOITI
JATETXEA**

Louroeta etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaurregoiti.com



**sarraila-denda
Txorierrri**

ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerrajeriatxorierrri.com
www.cerrajeriatxorierrri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4
48160 Derio

BATZOKI LOIU

Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bazkariak, enkarguz
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Anoak
Otaratekoak

Abadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKARETA ERRAZ

BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOIA



bai
euskarari

baieuskarari.eus

[/baieuskararizurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskararizurtagiria)

[@baieuskarari](https://www.instagram.com/baieuskarari)

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

*Doako autobus-
zerbitzua ipiniko
da zapatu gauean,
Loiura hurbildu
eta etxera itzultzeko*

*Paella lehiaketea
ekintzarik
garrantzitsuenetariko
bat izan ohi da; bertan
90 koadrila batzen dira*

dira eta nagusiak honeek izango dira: 250 euro, paellarik goxoen egiten dauan koadrilarentzat; 200 euro, bigarrenentzat; 150 euro, hirugarrenentzat; eta 100 euro, laugarrenentzat.

Oihartzun handia

Funk Sinatra taldeak musika saioa eskeniko dau, eta pala txapelketako finalen ostean, Kaotiko eta Oxabi taldeek hartuko dabe lekukoa. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira eta, aurreko urteetako moduan, Udalak doako autobus-zerbitzua ipiniko dau Loiura hurbildu eta etxera itzultzeko. "Autobus bik urtengo dabe Larrabetzutik 22:00etan eta 23:00etan; eta gero, autobus bat 03:15ean eta 05:00etan, Loiutik Txorierriraino; eta beste bat, Loiutik Ibarrekolandaraino. Ondo funtzionaten dauen zerbitzua da, asko eskertzen dana, holan autoa hartu behar izatea ekiditen dalako, eta Loiuko gazteek beste herri batzuetan daukiezan lagunak be hona hurbiltzera animaten diralako". Autobusak Txorierriko ohiko geldialdiak egingo dauz.

Barikuan eta zapatuan egindako parrandearen ostean, nasai-nasai etorriko da domekea. Padel txapelketearen finalak jokatuko dira goizean, eta karate eta taekwondo erakustaldiak egongo dira. Baita eskupelota txapelketea be. "Programa nahiko polita eukiko dogu jaietako azken egunerako. Umeentzako magia ikuskizuna egongo da, idi-probak eta Ke-



pa Junkeraren emonaldia. Txokolatada ostean Patxiko erreko da".

Zinegotziak pozik agertu dira antolatutako jai-egitarauagaz eta, euren uste-tan, jentea erakarriko dau herriko jaietan parte hartzera. "Herritarren eretxiak eta iradokizunak kontuan hartu eta horreek beteten saiatu gara. Adin guztietarako ekintzak egongo dira. Loiuko jaiak gero eta gorago dagoz eta kontzertuek oihartzun handia daukie inguruko herrietan be. Era berean, asmatu egin dogu karpea ipinten, bertan babestuago egoten garelako hotzetik eta euritik... Loiuko jaietan euririk egiten ez dauala urte batzuk diran arren". Beraz, euriagaz edo euririk ez dala be hitzordua dogu Loiun ekainaren 29tik uztailaren 2ra arte.



Jai-egitaraua

Ekainak 29, eguena. San Pedro

- 12:00: Mezea eta organu kontzertua, Pedro Guallarren eskutik.
- 13:00: Ohorezko aurrekua.
- 14:30: Nagusien bazkaria, Gure etxea nagusien elkarteak antolatua, karpan.
- Ostean, bilbainadak Iñaki Basabegaz, eta dantza lehiaketea.
- 17:00: Pala Txapelketearen finalau-rekoak, frontoian.
- 18:00: Pala Txapelketearen 2. finalau-rekoak, frontoian.
- 19:30: Goi-Alde dantza taldearen saioa, karpan.
- 20:30: Txupina eta pregoia, Li Karate Loiu alkartearen eskutik.
- Pantxikoren igoera.
- VI. Kartel Lehiaketearen sariak banatzea.
- 21:30: Erromeria, Luhartz taldeagaz, karpan.

Ekainak 30, barikua. Santa Luzia

- 11:00: Kalejireia.
- 12:00: Umeentzako jokoak, Loiuo Bakarrak alkatearen eskutik, karpan.
- 12:00: Mezea eta organu kontzertua: Miriam Cepeda – Luis Alberto Requejo.
- Hamaiketako herrikoia, Batzoki aurrean.
- 14:30: Gazte bazkaria, Loiuo Bakarrak alkartearen eskutik.
- 18:00: Pala Txapelketearen finalau-rekoak (2. kategoria), Irtxan pelota alkar-teak antolatua, frontoian.
- 19:00: Pala Txapelketearen finalau-rekoak (1. kategoria), Irtxan pelota alkar-teak antolatua, frontoian.



Manel Fuentes & The Spring Team

- 20:00: Etxeatze pelikulea, Loiu Laztana alkartearen eskutik.
- 21:00: IV. Tortilla Txapelketara tortillak aurkeztea.
- 22:30: Sariak banatzea.
- 23:00: Kontzertuak: Manel Fuentes & The Spring Team, Rock & Classics eta Dj Ibai.
- Uztailak 1, zapatua**
- 10:00: XIII. Paella Txapelketea.
- 12:00: Umeentzako tailerrak, paellen ze-laian.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Apar jaia / Mus Txapelketea, Loiuo Bakarrak alkartearen eskutik.
- 17:30: Sariak banatzea.
- 18:00: Funk Sinatra taldea, Paellen ze-laian.

- 18:30: Pala Txapelketearen finalak (1. eta 2. mailak), Irtxan pelota alkar-teak antolatua, frontoian.
- 23:00: Kontzertuak: Kaotiko eta Oxabi.
- Uztailak 2, zapatua**
- 11:00: Padel Txapelketearen finala (andrak eta gizonak).
- 12:00: Club Li Karate Loiu eta Club Taekwondo Doyan Yeol taldeen erakustaldia, karpan.
- 12:30: Eskupelota txapelketea, frontoian.
- 18:00: Magia ikuskizuna, karpan.
- 18:30: Idi-probak, Larrakoetxe herri kirol alkartearen eskutik.
- 20:30: Kontzertua: Kepa Junkera.
- 22:30: Txokolatadea eta Patxiko erre-tzea.



Kepa Junkera. a: Igotz Ziarreta.



a: Topagunea, Berbalagunek, Gurasolagunek

Mintzalagun, solaslagun, mintzakide zein berbalagun izenpean, ekainaren 3an Euskal Herri osotik etorritako lagunak batu ziren Derion, euren jai handia, Mintza Eguna, ospatzeko. Egitarau oparoa antolatu zen egun osorako, hala nola bisita gidatua Bilboko hilerrietik, bertso-triki-dantza-poteoa, herri bazkaria eta kantaldia.

Mintza Eguna Txorierriko Berbalagun egitasmoak eta Tximintx euskara elkarteak antolatu dute aurten, Euskaltzaleen Topagunearekin batera. Antolatze-lanean Altzora, Zorritzeta eta Lagatzu euskara elkarteek ere hartu dute parte eta ekintza Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen babesa jaso du. Topagunetik adierazi diguten moduan, oso pozik daude Derion izandako erantzunarekin eta parte-hartzearekin. "Harremanak estutzeko hitzordua izatea nahi genuen. Mintzalagunen eguna, urtean zehar egiten duten lana eta etorriko diren lorpenak elkarrekin ospatzeko".

Herri bazkarian 180 lagun batu ziren, eta goizean zein bazkalostean derioztar zein txorieritar askok egin zuten ospakizunarekin bat. "Giro bikaina izan zen egun osoan zehar". Berbalagunak Euskal Herriko hainbat txokotik etorri ziren Deriora: Iruñea, Elizondo, Bera, Doneztebe, Hondarribia, Donostia, Elgoibar, Gasteiz, Sorluze, Getxo eta Barakaldo, tartean.

Eguraldia ere lagun eduki zuten, bazkaltzeko ordura arte behintzat. "Ikusgarria izan zen: Baseri Antzokia leporaino beteta, egitasmo ezberdinetako lagunak nahastuta, elkarrekin hizketan, harreman berriak sortzen... Biba zuek!". Bazkalostea

Berbalagun uholdea, Derion. Gora zuek!



Taberna Ibiltariak girotu zuen eta asko animatu ziren haiekin batera eszenatoki-ira igo eta abestera; Txorierriko berbalagunak, solasguneak eta Eibarreko mintzalagunak, tartean. Sariak ere banatu ziren. Aurten, Txorierriko berbalagunek, Baztan, Bortzirak eta Malerrekako solaslagunek eta Eibarreko mintzalagunek jaso dituzte sariak. Gainera, Solaslagun egitasmoak agur hunkigarria es-

kaini zioten bere kideetako bati, Oiankori, egitasmoan urte asko eman baititu.

Eta konturatu orduko, elkarri agur esateko garaia heldu zen. Batzuentzat behintzat, beste batzuk berandu arte luzatu zirelako. Datorren urtean, Euskal Herriko berbalagunak berriro batuko dira bere jai handian, Mintza Egunean.

Argazkiak bere Flickr kontuan ipini ditu ikusgai Euskaltzaleen Topaguneak..



ez duzu ahaztuko

UDAKO ESKAINTZA 2017

aek

TXORIERRIKO AEK
Txepetxa euskaltegia

Maila edo azpimaila lortzeko ikastaro trinkoak

uztailean | 03-28 irailan | 04-29
asteaz 5 egun (goizez) asteaz 5 egun (goizez)

Animatuz gero, elorri edo deitu lehenbailehen

Gorbea kalea 5 behea, DERIO
944 54 39 67/607 598 794 · txepetxa@aek.eus

aek
euskaraz praktikoa

EUSKALTEGIAK
IKASTARO TRINKOAK
ON-LINE IKASTAROAK
ERE BAI!

2 ASTEKO BARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 · 946 464 000
www.aek.eus

Munduko nekazaritza, Txorierrin



Uztailaren 16tik 24ra bitartean Vía Campesinaren VII. nazioarteko konferentzia izango da Derioko Seminarioan. Hainbat herrialdetatik etorritako 400 ordezkari mugimenduen ildo nagusiak aztertuko dituzte bertan, eta datozen urteetan jorratu beharreko estrategiak zehaztuko dituzte.

t: Itxaso Marina / a: Vía Campesina

EHNE, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna, nekazari eta abeltzainen sindikatua da, eta konferentzia eta haren inguruan egongo diren ekintzak antolatzeko ardura du. Alazne Intxauspe Elolak, sindikatuko kideak, Vía Campesina mugimenduen nondik-norakoak azaldu dizkigu. "1993. urtean sortutako mugimendua da, Monsen, Belgikan, egindako biltzarraren haritik. Mundu mailako mugimendua da eta horretan 73 herrialdek eta 163 erakundek hartzen dugu parte, nekazaritza edo arrantza arlokoak. Sistema kapitalistak gero eta indar handiagoa du mun-

duan eta lehenengo sektoreak ere badu industrializazioko eredurako joera. Kapitala, merkataritza askearen tratatu eta agroindustriaren aurrean, guk eredu txikiago bat defenditzen dugu, familiarra, baserri eredu bat; hau da, Euskal Herrian beti egon dena".

Intxauspek esandakoaren arabera, konferentzian mugimenduen nondik-norakoak aztertu eta etorkizunari begira jorratu nahi diren ildo estrategikoak eztabaidagai izango dituzte. "Besteak beste, merkataritza askearen tratatua, agroekologia, elikadura burujabetza, genero indarkeria, gazteek lurra eskuratzeko dituzten arazoak eta beste hainbat gai landu-

ko ditugu. Era berean, konferentziaren helburuetariko bat zera da, taldea egitea, mugimendua indartzea, zerk batzen gaituen ikustea". Vía Campesinaren barruan bederatzi eskualde daude: lau, Amerikan; bi, Afrikan; beste bi, Asian; eta bat, Europan. Palestina eta Afrikako iparraldea batu eta beste eskualde bat osatzeko eskatu da. Konferentzian 10. eskualde horren sorrera ere bultzatu egingo da, ziur asko.

EHNE sindikatuko kidearen esanetan, mugimenduan *elikadura burujabetza* kontzeptua txertatzea giltzarria izan da. "Argi dago elikadura burujabetza ez dela berdin Euskal Herrian, Senegalen

"Agroindustriaren aurrean, eredu txikiago bat defenditzen dugu, familiarra, Euskal Herrian beti egon dena"

"Besteak beste, merkataritza askearen tratatua, agroekologia eta elikadura burujabetza landuko ditugu"

Herriarrei zuzendutako ekintzak ere egongo dira: dokumental bat, hitzaldi bat, kontzertuak...

hizpide

edo Kanadan. Baina kontzeptu ideologi-ko-politiko bezala denok marko berdin bat eduki eta horren alde egitea lortu dugu". Eta, horrela, kolektiboak sortu dira eta bakoitzak arlo espezifiko bat ikertzen du, dela haziena, edo lurra edo nekazarien eskubideak. "Nolanahi ere, badakigu, gero, herrialdearen arabera, bakoitzak bere erara egin edo moldatu behar duela. Bestetik, esan liteke *elikadura burujabetza* kontzeptua gizarteratzea garrantzitsua izan dela, ze askotan ustea dago hori lehen sektoreari bakarrik dagoiola, eta ez da horrela; gizarte osoaren ardura da.

Mugimendua gizarteratzea

Tankera honetako nazioarteko ekintza bat Derion, Euskal Herrian, antolatzea erantzukizun handia da sindikatuarentzat, baina, aldi berean, aukerak ekarriko ditu. "Munduak arreta Euskal Herrian ipintzeaz gainera, gure lana eta errebin-dikazioak hurbildu ahalko dizkiegu herritarrei". Eta Vía Campesina eta bere eginkizuna gizarteratzeko hain zuzen ere, herritar guztiei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dira konferentziaren inguruan. "Karpa handi bat ipiniko da, eta herritarren eta delegatuen arteko topagunea izango da. Ikerketak aurkeztuko dira bertan, adibidez, gazteek eta emakumeek lehenengo sektorean sartzeko dituzten arazoak aztertzen dituztenak; arrantza inguruko dokumentala ere emango da; feminismoari buruzko mahai-ingurua egingo da; hizkuntza minorizatuei buruzkoa ere bai... Zerbait ludikogoa ere antolatu nahi genuen, eta datozenei gure kultura eta folklorea erakutsi. Horretarako, herri kirolak egongo dira, Aiko taldearen dantza saioa, musika, ETS taldearen kontzertua eta kantu afaria, batzuk aipatzearren".

Nekazaritza soziala bultzatzen

Vía Campesinak eta harekin bat egiten duten baserritarrek ahalegina egiten dute nekazaritza soziala bultzatzen. Jose Antonio Lekue larrabetzuarrrak azaldu digun moduan, eredu hori batez ere ezaugarri bik bereizten dute: alde batetik, lan egiteko era; eta, bestetik, merkatua. "Nekazaritza industrial sartu denean, gaur eguneko merkatutik baztertu gaituzte ekoizle txikiak. Superproduktiorako joera egon da, merkatu handien alde egin da, produktuak munduan zehar ibili dira, leku batetik bestera, eta salmenta zuzena alde batera utzi da. Era berean, lurra abandonatu egin da eta azken 40 urteotan hori beste helburu batzuetarako erabili da. Ondorioz, gero eta baserritar gutxiago gaude. Eta kalte lurraren erabilpenari ez ezik jakintzari ere egin zaio".

Honek beste merkatu bat sortzeko beharra ekarri du, ekoizle eta kontsumitzaileen artean harremana zuzena bultzatu duena. Lekueren esanetan, nekazaritza industrial horretatik kan-

po bizi izatea ez da erraza, baina egin daiteke. "Euskaldunok, herri moduan, ezin dugu nekazaritza sektorea bertan behera utzi. Azken batean, elikatu behar dugu eta baserritarren eginkizuna da gizartea elikatzea. Elikadura guztia kanpotik ekartzen bada edo besteen esku uzten bada, nire ustez, porrota da. Vía Campesinatik proposatzen dugu geuk erabakitzea zer ekoiztu, eta hori gure artean banatu. Honek beste ekonomia mota bat dakar, espekulaziotik kanpo dagoena. Proposamen sakona da".

Euskal Herriko ohiko nekazaritza eredura itzultzea proposatzen da eta horren haritik, azken urteotan, Txorie-rrin zein beste eskualde batzuetan, gazteak filosofia honekin hasi dira lurra lantzen. Azokak antolatzen dituzte eta ahalginetan dabilta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremana sendotzeko. "Bitartekoak behar dira hau guztia praktikara eramateko, eta administrazioak badu zeresana horretan. Proposamen interesgarria da, baina gatxa".



OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA
ULEAPAINDEGIA
MUNGIALDE ETORRIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarri leagun Facebooken

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokortasun
Asuntuen konmutatzaileak
Mantutzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbilerako garbitzaileak
Baserriak
Zahar bikaria
Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

t/a: Sabin Arana

–Baie, zer delata irudi hori, eta ikur-burua?

–Ba, ikusten dokenez, aldarrikariak paparrean iaroaken armarria Gaztelutarrrena dok, baita esan beharra iauk, gaur egun ezagutzen iuken eraikuntza XVIII. mendearen erdirantz, Joseph Bentura eta bere anaia Gaztelutarrak, biak be abadeak, berreraikitakoa dokenez, bere armarria jarri iotxiekien.

–Eta ikur-buruko esaldi potolo hori?

–Bai, hori esaleikean zaharragoa dokela. Sendi horren arbasoetako bat izan zoan Larrabetzuko Juan Ortiz de Gerra, Hordoño de Zamudio Zugastiren idazkaria (garaian “morroi” deitzen zoazen idazkari lana egiten eutenak be), XVI. gizaldian erdirantz. Hark bere abizenarekin hitz joko bat eginez, bere sendiaren ikur-burutzat jarritakoa zoan ikur buru hori. “Traiga la paz quien quisiera, que por **“gerra”** yo guardare mi tierra” legenda edo ikur-buru. Hau dok “bekar (edo ekar diela) bakea gure iokenak, nik neuk **“gerra”**n aitaren etxea defendituko ioat”

Hortaz, Gerraren armarria iakoan aldarrikariari, baie esan joaten lez, Gaztelutar ondoregoak berreraikia dok etxea. Boteretsuen antzera edo egindako etxea.

Etxea Gangoitarrak (markesak) erosi ioanean be irudi hau errespetatu egin ioan, jakina hari be handikien gauzak gustetan iakoazan.

–Eta nondik iatorkiek haueri hainbesteko ospea?

–Bai, hori be aipatzekoa dok. Gazteluko etxaguntza berez nahiko handia bazoan be, beste Larrabetzuko abizen ospedun eta boteredunen sendikoak zoazen. Hau dok, Gerra, Goikoolea, Zugasti, Sarrikolea, Sarria, Zamudioko Zandoika eta abar be arbasotzat iekiezan. Esan geinkean etxe hori berreraiki zoanean, Larrabetzuko etxagune handienak zoazela. Ondorengoek XXan ia dana saldu baieuren be.

–Plazako margodun etxeaz ari gozak, eztok?

–Baita, baie gogorarazi behar ioat, esandako Gaztelu anai abadeak, beste etxe bat be berreraiki ieuiriela, garai hortan. Mendieta urte batzu doazkela erre zoana, Zubiaurre etxea, Goikoola abizenekoen etxea, goiko frontisean margo

Gerra-Gaztelu etxea

Larrabetzun, Markesaren etxea moduan ezagutzen dogu Ikaza jauregia, baina zein da bere historia? Hori hurrengo lerrootan azalduko dot eta horretarako, alde batetik, bi lagunen arteko alkarrizketa irudikatu dot; eta bestetik, Larrabetzun erabilten dogun hitanoaz idatzi dot.




Goian, Plazako Jesusa, hainbeste urtetan etxe horretan maizter izan zoana. Atarian besteak beste, eskailera ondoko horman zegeon irudia, azken moldakuntzan desagertu zoana.

Eskuinaldean, Gastelu abizenekoen erabili eurien armarria.

geometrikoez hornituta egon zoana. Azken gerra ostean itxuraz aldatu ieurien arte. Egun beste aldaketa bat ezagutzera goaixak. Alboko irudian ikusi al iekueenez. Zalantzarik ez, oraingoan be jauregi itxura mantenduko iokela.

–Baie nondik iatok sendi honen garrantzia?





–Bai esan joaten lez, arbasoen artean baiak pertsonai arrakastadunik. Adibidez Thomas de Goikoolea, honek liburutxoa be idatzi ioan, bere enpleguak zoazela ta ondo ezagutzen ei ioazan Jaurerriko jauntxoak. Alboan jarri iukena dok liburu horren lehenengo orria. Foru Aldundian be hainbat enplegu izan ioazan, Bizkaiko burruinearen kanporatzea kontrolatzeko komisario gisa tartean.

Larrabatzuko semea zoanez, eskribaua eta Foru Legean be aditua, Pedro de Gasteluren hilketan esku hartu joan alkate eta epaile arruntaren laguntzan,

Irudian: Alboko Simon Judas be sendiko zolan, Plazako etxe horretan jaioa. Karlista ospeduna hasieran, Bergarako itunean zerikusi handia eduki ioana. Gero Isabelino bihurturik esker onak hartu ioazan. Interesa iekokenak interneten bere izena jartzea baino etxekok.

Pedro horren seme zolan Prudentzio eta bere emazte Maria Perez de Billelaren aurka egin zolan epailetan. Kasu honetan nahiko txarto urten ioan, ba ze Pero Abendaño abadearekin topo egin ioalako eta hau be boteretsua zolan. Bide batez esango ioat Pero Abadea Maria Perez de Billelaren lehengusua eta balitekean zeozer gehiago be bazoala.



Lintzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOIA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetakoko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Uritarra, larrabetzuarra

t: Gaizka Eguzkitza

“Ez dozu inoz pentsaten hainbeste urte emongo dozuzala, baina tira, hemen gagoz”, esan deusku Iñigo Martínez de Alegría Manci Uritarra taldeko presidentek. Zarata handirik egin barik, Larrabetzuko taldeak 70 urte bete dauz. Ospakizun umila izan zan: goizean, hiruko txapelketa jokatu zan eta omenaldia eskaini eutsien lau jokalarri ohiri eta bost laguntzailerri; eta ostean, herri bazkaria eta musikea. “Batez be hunkigarria izan zan omenaldiaren momentua, batzuek 80 urte baino gehiago ebezalako”.

Uritarra klubak hainbat urte daroa helburu bakar bategaz, “herriko umeei gura dabeneraino Larrabetzun futboleko jokatzeko aukerea izatea”. “Udalak laguntzen dau taldea; esate baterako, zelai barria Udalarena da. Baina herriak be babesten gaitu. Larrabetzun beste kirol batzuk be badagoz, baina herriko ume gehienak pasau dira taldetik. Taldeak lotura handia dauka herriagaz, batez be aurreko batzordeak egindako lanari esker”, dino Mancik.

Horren haritik, betiko eztabaida dago taldean: bakarrik herrikoek jokatu behar dabe ala baita kanpokoek be? “Guk uste dogu kanpokoek be jokatzeko aukerea euki behar dabela. Izan be, Larrabetzu oso herri txikia da, eta ondorioz, ezin da jarraitasuna bermatu, hau da, maila guz-

*“Herriko umeei
gura dabeneraino
futboleko Larrabetzun
jokatzeko aukerea
emon gura deusagu”*

URITARRA TALDEA

Uritarra Larrabetzuko futbol taldeak 70 urte bete dauz. Ibilbide luze honetan gorabeherak euki ditu, eta 1960an desagertu eta gero, 1980an berbiztu egin zan. Gaur egun osasuntsu ospatu dauz urteak.



tietan taldea sortu ahal izatea, ume nahikorik ez dagoelako”. Gaur egun 160 jokalarri inguru dagoz taldean: 80, futbol eskolan; eta beste 80, kadete eta gazte mailtako taldeetan zein A eta B taldeetan.

Jarraitasun hori bermatzeko, funtsezkotzat jotzen dabe klubeko futbol eskola. “Hori sortu baino lehen, talde nagusia, eta batzuetan gazte mailako talderen bat be, bagenduan. Eskolari esker, behintzat talde bana dogu kategoria guztietan eta ondorioz, herritik gertuago gagoz: larrabetzuarrek taldea ezagutzen dabe, taldea jarraitzen dabe, partiduak zuzenean ikustera etorten dira...”

Kudeaketa ona

Talde txiki bat kudeatzea ez da erraza eta askotan jente gehiago inplikatzeko gurako leukie klubekoek. Dana dala, pozik dagoz orain arte egindako lanagaz. “Esate baterako, talde nagusiko jokalarie partiduak irabazteagaitik bakarrik emoten deutsegu prima, hau da, gure mailako beste taldeek emoten dabena baino gitxiago ordaintzen deutsegu. Eta halanda be, gure jokalariek ez dabe beste talde batera joan gura eta ganera, gero eta kanpoko futbolari gehiagok etorri gura dabe gurera. Adibidez, Aitor, A taldeko atezainetako bat, Laudiokoa da, eta handik etorten da sosik kobrau barik, eta

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaladaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 99
Fax 94 454 14 18
Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

Nire Autocasion **NA**
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Txarri etorbidea, 3-4
413. Irujoa
48160 Derio
Telefonoa eta faxa
94 454 94 98
a.amondarain@euzk-erret.net

*“Kirol arloaz ganera,
gure ustez, gurearen
moduko taldeek
gizarte arloa be
landu behar dabe”*

beste talde batzuetan jokatzeko eskaintzak jaso arren. Diruaz aparte emon ahal deusagun guztia emoten ahalegintzen gara”.

Uritarrakoak ez dira dirudunak, baina beti agertzen dira beste batzuei laguntzeko prest. Holan bada, 2010ean hasi ziran txapelketa solidarioak antolatzen. “Saria bezalakoa da gure jokalarik gazteentzat, goi-mailako taldeen kontra jokatzeko aukerea dabelako. Kirol arloaz ganera, gure ustez, gurearen moduko taldeek gizarte arloa be landu behar dabe. Eta txapelketak helburu solidarioa dauka, bertan batzen dogun dirua alkarte bati eskaintzen deusagulako”. Aurten ez dabe egin, arazo batzuk euki dabezalako, baina datoren urterako barriro antolatzeko asmoa dabe.

Klubak ziur asko zorra dauka emakumezkoen futboleagaz. Gaur egun, neska batzuek jokatzen dabe eskolan, baina goimailan ez dago emakumezkoen talderik. “Orain dala urte batzuk egon zan nesken taldea. Pena da, herriko futbolariet inguruko taldeetan, kanpoan, jokatu behar dabelako, Derion batez be, baina ez dira nahikoak guk talde bat osatzeko”. Hutsune hori alde batera itxita, Uritarra “errealitate sendoa” da Larrabetzun, eurek esaten daben moduan. “Gure gazteek sei urtetik gorputzak ahal dauan arte herrian bertan jokatu ahal dute futboleant. Herritik herritarrentzat sortutako proiektu honek hiru oinarri dauz: integrazioa, talde lana eta aisialdia betetzeko aukerea”. Eta horreek azken 70 urteotan izan dira taldeko ezaugarriak.



20 urteko etenaldia

Uritarra taldeko urteurrenaren haririk, Oskar Gazteluk kirol alkartearen historia jaso dau bederatzir orrialdek osatutako dokumentu baten. Egileak holan aurkeztu dau bere lana: “Gogobetetasuna, errua eta pena sentidu doguz: gogobetetasuna, Uritarra taldearen historia apala batzeko aukerea euki dogulako; errua, gura barik aldizkari honetatik kanpo gera daitekezan pertsona, gertaera edo datuengaitik; eta pena, lan hau arinago ez hasteagaitik. Horregaitik, herri honek sortu dauan altxorra danon artean konpartitzearen beharra izan dogu; espero dogu horrek Larrabetzuko memoria kolektiboari ekarpena egitea”.

Taldea 1947an sortu zan, baina 1949ra arte ez zan federatu, Juan Arteagaren eskutik. Lehenengo partida ofiziala 1949ko irailaren 11n jokatu eban, Iturrigorri taldearen aurka (1-1). Berrogeita hamargarren hamarkadea oparoa izan zan, taldea birritan igon zalako. Halanda be, 1960. urtean, ezin izan eban futbol zelaia mantendu eta taldea desagertu zan. Hogeirte urte pasau ziran, taldea

*Lehenengo partida
ofiziala, 1949ko
irailaren 11n jokatu
eban, Iturrigorri
taldearen aurka (1-1)*

barriro martxan jarri arte. 1980an, Jose Apraizek, Jose María Burgosek eta beste batzuek birsortu eban Uritarra.

Sei urte beranduago, 1986ko abuztuaren 23an, inagurau zan Larrabetzuko futbol zelai barria, gaur egun goa. Harrezkero, taldeak aurrerapausuak emon ebazan apurka-apurka. Baina erabagi benetan garrantzitsua Jose Luis Sagastigordia presidenteak hartu eban, 2009an futbol eskola sortu ebanean. Gaur egun, eskola horren emaitzak bikainak dira benjamin, kimu zein haur-mailetan, eta horri esker, Txorie-rrin, erreferente bihurtu da beheko mailetan.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
horts klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Hegaz doaz gure datuak

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Telefono mugikorrean aplikazio bat instalatzen duzun bakoitzean, android sistema eragileak galdetu egiten dizu aplikazio horri ze nolako eskubideak ematen dizkiozun: deiak egin, datu-konexioa erabili, GPSa, mugimendu-sentsorea, fitxategiak irakurri... Iphone eta Ipaden sistemak, berriz, nonbaiten, erdi ezkutuan, idatzita duten arren, galdetu ere ez du egiten. Guk informazioa eta galderak irakurri, eta ados bagaude, onartu egiten dugu. Irakurri, onartu baino lehen irakurtzen dugulako, ezta?

Non bizi eta lan egiten dugun (GPSa), pertsona aktiboak garen (mugimendu-sentsorea), lagun askorik dugun eta haiekin zelako hizkuntza mota erabiltzen dugun (mezu aplikazioak), interneten zer erosten dugun (posta elektronikoa)... Telefono mugikorrak informazio asko gordetzen du guri buruz, eta Haystack proiektuaren (1) emaitzen arabera, hamar aplikaziotatik zazpik hirugarren batekin partekatzen du informazio hori (2).

Noski, ibilbideak erakusten dituen aplikazio bati GPSrako sarbidea onartu beharko diogu, edo argazkiak editatzen dituen aplikazio bati fitxategiak dauden karpetan sartzen utzi. Eta erabili nahi baditugu, baimenak bai ala bai emango be-

harko dizkiegu aplikazio batzuei. Baina zertarako nahi du bere kabuz abiatzeko aukera xake joko batek? Zertarako nahi du gure kokapena WhatsApp aplikazioak?

“Doakoak” diren aplikazio askok, hala nola Facebook, WhatsApp eta Snapchat, gure datuak euren zerbitzuaren truke erabiltzen dituzte eta, gainera, horrela agertzen da irakurtzen ditugun (ezta?) erabilera-baldintzetan. Enpresa horientzat, geu gara produktua; beno, gure datuak. Datuak aplikazioan iragarki jakin batzuk sartu edo euren produktuak saltzeko, adibidez, erabiltzen dituzte. Baita datuak eurak hirugarren bati saltzeko ere. Beste aplikazio batzuetan *traker*-ak (azterkariak) erabiltzen dira, ezkutuan, gure datuak beste batzuei bidaltzeko. Eta batzuetan garatzaileak berak jakin barik ere!

Azterkariak

App bat garatzen denean ez da dena zerotik egiten, baizik eta beste batzuek garatutako programatxoak eta liburutegiak erabiltzen dira. Ideia hauxe da: norbaitek jada GPSa kontrolatzeko programatxo bat garatu badu eta hori librea bada, zergatik garatuko dut neuk berri bat zerotik? Eta arazoa hurrengoa: batzuetan horiek *traker* batekin kutsatu dira aurre-

Aplikazio askok gure datuak euren zerbitzuaren truke erabiltzen dituzte; geu gara produktua

tik, eta garatzaile berriak jakin barik, aplikazioak datuak partekatzen ditu.

Google Play zein iTunesen dauden aplikazioek gutxieneko arau batzuk bete behar dituzte, eta horrek berme osorik ematen ez duen arren, bada zerbait. Beste gune batzuetan ez dago inongo kontrolirik, ez *traker*, ez beste segurtasun edo pribatutasun arazoek kontra.

Datuak partekatzea, baimenarekin zein baimen barik, energia eta datuak kontsumitzen ditu. Gainera, agerian uzten ditu gure pribatutasuna eta segurtasuna. Beraz, badakizue, baldintzak irakurri eta ganoraz ibili. Sarean ere bai.

(1) The Haystack Project ICSI—UC Berkeley
<https://goo.gl/VhpexN>
(2) 7 in 10 Smartphone Apps Share Your Data with Third-Party Services, Scientific American.
<https://goo.gl/KGEfXB>





Mundu honetan ez da faltako zeresana

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Ideiak paseko txoriak dira, gaur hemen eta bihar han direnak. Era berean, pertsonaren fama ere hegoduna da, hara-hona dabilena, zurrumurruek uhinek eraginda, pertsonari izen ona eman nahiz kendurik.

Eguneroko bizitzan, epaile jokatzeko dugu ingurukoekaz, baina arau bako epaile izanik. Batzuetan ahura datorkiguna esaten dugu, birritan pentsatu barik. Beste batzuetan, larregi pentsatuta, borondate txarrez, kalte egiteko. Kasu guztietan, txutxu-mutxu sortzaileek euren

burua hartzen dute neurritzat, eta gero neurri horren arabera kritikatu besteak.

Edozelan ere, guri zurrumurruek bidez jarritako San Benitoen aurka ezin jokatu dugu Jano jainkoaren aurpegi biak ipinita -aurrera eta atzera begira, zelatan, bizi egin behar da-eta. Gutariko bakoitzaren edo gure ekintzen aurka entzuten diren marmarrak olatuak dira, haize boladak, zibilizazio likido honetako itsasoan jotzen gaituztenak.

Gure esku dago leinari sendo eustea itsasontziak aurrera jarrai dezan. Geure buruaren kontrola ezin laga dugu beste- en iritziaren menpe. Gure iritzia besteen -

erakunde nahiz pertsonen- iritzia baino baliokoagotzat hartu behar dugu, lankidetzako gizartea eraiki dezagun. Gizarte horretan sor dezakeguna adierazteko, Lennon eta McCartney-ren ereduaz baliagaitzke: bakoitza bere aldetik abesti-idazle handiak ziren, baina biak batera, bat gehi bat baino askoz gehiago.

Finean eta buruan, Lezaman esaten denari egin behar diogu aurre:

*Handia bada, kankala;
txikia bada, enana,
mundu honetan ez da faltako
zeresana.*

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak 94 455 42 15
Anoak Garaioitza, 74
Plater konbinatuak 48196 Lezama

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio de Orjina

Bizkaiko Txakolina

Goiitza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

**TABERNA
GAZTEDEI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**BOLALEKU
JATETXEA**

10. URTEPERENA

Garaioitza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10

Jantoki
Facebooken

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK



Sardina-enpanadea

a: *conpanypostre.es*

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 10 sardina
- Kipula bat
- Piper berde bat
- Berakatz-atal bi
- Arrautza irabiatua
- Oliba orioa
- Gatza
- Perejila
- Enpanadea egiteko orea

Prestetako errea:

Berakatzak xaflatan ebagiko doguz; eta kipulea eta piperrak, juliana eran. Zartagin baten orio apur bat ipiniko dogu eta bertan gorrituko doguz berakatzak. Gorritzen hasten diranean,

kipulea eta piperrak gorrituko doguz. Gatza bota eta su ertainean egingo doguz, harik eta gorritzen diran arte. Xukatuko dogu. Sardinak garbituko doguz. Horretarako, ezkata, burua eta erraiak kenduko deutseguz. Sardinak ireki eta bizkarrazurra kenduko deutsegu. Xerra biak atera eta gatza botako deutsegu.

Enpanadea egiteko orea zabalduko dogu. Orearen erdi baten barazkiak eta sardina-xerrak ipiniko doguz. Orearen beste erdiaz estali eta izkinak ondo zigilatu doguz, sardexka batek lagunduta. Enpanadea labarako azpil batean ipiniko dogu. Arrautza irabiatuagaz margotu eta erdian zulo txo batzuk egingo deutseguz, lurruna atera eta hobeto egosi daitezkan. Laban 20 minutuan eukiko dogu 200 gradutan.

Etxeko sukaldaritza

Mailuki eta bananazko irabiakia

t: *M. Lekerika / a: knead to cook.com*

Osagaiak (6 lagunentzat):

- Hiru banana (oso helduak).
- 500 g mailuki (helduak).
- 150 g azukre.
- 500 ml esne.
- Kanela-hautsa (gustukoa bada).

Prestetako errea:

Osagaiak nahastu eta ondo irabiatuko doguz. Irabiakia hotz zerbiduko dogu, edo izotzagaz. Gainera, gustukoa bada, kanela-hautsa bota deikeogu.



48190 LEZAMA Bizkaia Gaitortza auzoa, 36

SANTI LEZU
BERRABILGINTZA ETA BERRA-LENDAKIA

F: 94 455 64 17 T: 94 455 61 98

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAITARITZA

Nerea Pedrosa Cols. 617
COOP. GRANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

SOLAZPI

Gaitortza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Gaitortza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



aritz eta nagel
aikor! 2017ko ekainaren 18an

Umeekin zer irakurri?

Ez da munduan min handiagoa ematen duenik

Ana Apika

Egilea: Paco Livan

Irudiak: Roger Olmos

Afrikatik ekarritako istorio hau, Boli Kosta herrialdetik hain zuzen ere, oso eredu ona da ahozko narrazioa zer den jakiteko, eta, idazkera eta alfabetizazioa agertu baino lehen, ideiak, kontzeptuak... munduan belaunaldiz belaunaldi zelan transmititu diren jakiteko. Olmosek egindako marrazkiek informazio gehiago ematen digute istorioari buruz, gertatzen dena hobeto ulertzeko eta protagonisten ezaugarriak-eta ikusteko.

Afrikatik kontatzen den istorio honetan, protagonistak, Erbia eta Hiena, hizketan dabilta arrantza egiten duten bitartean. Halako batean erbiak esan du gezurra munduko gauzarik mingarriena dela, eta

hienak barre algara egin du. Erbiak berak esandakoa egia dela erakutsi behar dio eta, horretarako, pastel berezi bat utziko du gazteluaren atarian, erregea erabat suminduko duena. Gero, eulien laguntzarekin, errua erruduna ez den animalari botatzea lortuko du, hienari hain zuzen ere.

Oso istorio polita da, etxean edota eskolan antzetzeko, dinamikoak, arina eta barregarria. Ondo pasatzeaz gain, hausnarketara ere bultzatzen du. Album ilustraturik onenaren *Premi Llibreter* saria lortu zuen 2006. urtean.

Aholkua

Ahozko tradizioatik ateratako istorio asko daude haur literaturan eta literatura munduan orokorrean, solte edo bildumetan jasota. Istorio horiek belaunaldiz belaunaldi transmititu dira, ahoz aho, hel-



duek kontatuta eta umeek entzunda, mundua hobeto ulertzeko, horren arriskuak ezagutzeko eta horiek saihesten saiatzeko; helduarora ailegatzen direnean prest egoteko, eurengan segurtasuna finkatzeko eta umeek laguntza behar dutela aldarrikatzeko. Istorioak edo kontuak beharrezkoak dira gure umeentzat, betiko bertsioak batez ere. Bilatu, jaso eta irakurri. Zure gustukoak izango direlakoan nago.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Ikuskizunak

Derio

- > *Rogue one*, filma. Uztailaren 7an, 22:15ean, Ganben.
- > *Animales fantásticos y dónde encontrarlos*. Uztailaren 21ean, 22:15ean, San Migelen.



Irteerak

Sondika

- > Punta Begoñako galeriak. Uztailaren 6an, 16:15ean, autobus geltokian. Lagunandre taldeak antolatua.
- > Somiedo. Uztailaren 7tik 9ra. Arroeta mendi taldeak antolatuta.
- > Gernika eta Bermeo (Karmen Eguna). Uztailaren 15ean, Adintsuen taldeak antolatua.
- > Santiago bidea. Uztailaren 29tik 31ra. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Bestelakoak

Zamudio

- > Azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina. Uztailaren 14an, 11:00etan, igerilekuan.
- > Esklerosi anitza duten lagunen aldeko kanpaina. Uztailaren 19an, 10:00etan, igerilekuan.

Lezama

- > Valle de Tena (Pirinioak). Uztailaren 28tik 30era, Gailur mendi taldeak antolatua.

Konekta zaitez gurekin!


 **Facebook:**
aikoraldizkaria



 **Twitter:**
@Aikortxorierrri

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus



en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-aitzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____

Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORRIERRIKO EUSKARA ELKARITEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

VII. Nazioarteko konferentzia

DERIO
EUSKAL
HERRIA
UZTAILAK
16-24
2017



**GURE HERRIAK ELIKATZEN
DITUGU ETA MUGIMENDUA
ERAIKITZEN DUGU
MUNDUA ALDATZEKO**

